

\* AURTENGO MOTELTZEAN DATORREN URTEAN AREAGOTUKO DA ETA HAZKUNDEA % 3,5-EKOA IZANGO DA

# Confebaskek egonkortasuna nahi du ekonomia ez kaskartzeko

EAEko ekonomiak hazkunde handia izan du aurten, baina datorren urtea eskasagoa izango dela iragarri dute Confebask enpresarien elkarteko arduradunek. Inguru sozio-politikoaren egonkortasunak lagunduko du, haien ustez, emaitza positiboari eusten.

Joseba Aiarza / Bilbo

EKONOMIAREN hazkundeak urte honen bukaeran izan duen motelteak datorren urtean ere jarraituko duela iragarri du Baltasar Erraztik, Confebask euskal enpresarien elkarteko presidentea. Ondorioz, 1996ko emaitzak aurtengoak baino eskasagoak izango dira.

Kasurik onenean, EAEko ekonomia % 3,5eko hazkunde tasa lor lezake (Espainiarako aurrikusitako % 3koaren gainetik). Hazkunde honek enpleguan izango du eragina eta hau % 2,5 gehituko da EAEn, 20.000 lanpostu berri sortuz. Ondorioz langabeziak behera egingo duela uste du Confebaskek, nahiz eta % 23ko tasaraino besterik jaitziko ez den.

Hazkunde honetan inbertsioak izango du berebiziko eragina, eta kontsumo pribatua ere zuzperetzea espero du Jose Guillermo Zubia Confebaskeko idazkariak. Industria izango da, aurten bezala, hazkunde honen motore, nahiz eta eraikuntza eta zerbitzu sektoreek ere jardueratasa hobea lortuko dituzten.

Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia Espainiakoa baino gehiago hazteko arrazoia nazioarteko begira zabaltea izan da. Patronalaren datuek erakutsi dutenez, 1989an euskal enpresek Espainian saltzen zituzten 100 pezetako nazioarteko merkatuan 38 saltzen zituzten, eta gaur egun atzerrian 73 saltzen dituzte Espainian saldatutako ehun pezetako.

Baina datorren urtean EAEko ekonomia lotuagoa egongo da



Confebaskeko buruzagiek ekonomiaren aurtengo bilakaera eta 1996ko aurrikuspenak aurkeztu dituzte.

XOUSE SIMAL

Espainiakoarekin, nazioarteko merkataritza apalagoa izango delako eta horrekin euskal esportazioak ere gutxitu egingo direlako.

Lotura honen ondorioz, euskal enpresariak kezkatu agertu ziren Espainiako egoera sozio-politikoaren inguruko zalantzak eta ez-egonkortasuna konpondu gabe daudelako. Confebaskek egonkortasun handiagoko eskatu dio inguru sozio-politikoari, inbertsioei eta kontsumoari eragiteko.

Egonkortasun giro honetan inflazioaren eta defizit publikoaren jaitzierak beharrezkotzat jo ditu euskal elkarte patro-

nalak, interes tasak jaitsi ahal izateko eta ekonomiari berriz eragiteko.

**Ekonomia produktiboan oinarritutako hazkundea** • Aurtengo ekitaldiaren bukaeran EAEko hazkunde ekonomikoa % 4 ingurukoa izango dela egiaztatu du Confebaskek. Hala ere, hazkunde honek goia jo duela eta urteko lehenengo hiruhilekotik hona motelte zantzuak erakutsi dituela ere ohartarazi du patronalaren txostenak.

Hazkunde hau «oso sendoa da, ekonomia produktiboan eta inbertsio handietan oinarrituta dagoelako eta enpleguan ere is-

ladatu delako», azpimarratu zuen Eduardo Aretxaga elkarteko Ekonomia zuzendariak. Inbertsioak % 10 haziko dira urte honetan.

EAEko biztanleria okupatua % 3,6 gehitu da aurten eta 24.800 lanpostu gehiago eratu dira, langabezia tasa % 23 ingurura jaitziz.

Kontsumoa apala izan da aurtengo ekitaldian aldagai kaskarrena. Apaltasun horren arrazoiak krisia amaitu berria izatea, gizartearen babes sistemaren inguruko zalantzak, enpleguaren behin-behinekotasuna eta, batez ere, egoera sozio-politikoak sorturiko mesfidantza dira enpresarien ustez. X

JON ERNAEZ

## Pobreentzako laguntzak murriztearen kontrako protesta

Baliabiderik gabekoei laguntzeko aurrekontua murriztu izanagatik egin zuten protesta atzo ehun lagun inguruk Eusko Legebiltzarraren aurrean, Langabetuen Asanbladak, apaizen elkarteak, ESK-CUIS eta STEE-EILASEk deituta. Pobrei laguntzeko diru kopurua mila milioi pezetan urritu izana salatzen zuten.

Haatik, Gobernuak jakinarazi zuenez, pobreziaren aurkako dirurik aurrikusi ez badute ere, mailegu batez baliatuko da Gobernuaren kontrako programa gauzatzeko.



## Etzi hasiko da Nekazaritzako dirulaguntzak eskatzeko epea Nafarroan

■ Aurrerantzean eskaera bakar bat egin beharko da

A. Unanue / Iruñea

AURRERANTZEAN Nafarroako nekazari eta abeltzainek eskaera bakar bat egingo dute Europako Batasunak eskaintzen dizkien dirulaguntza guztiak eskuratu ahal izateko. Hala iragarri zuen atzo Javier Etxarte Nekazaritzako sailburuak, datorren urteko kanpainaren aurkezpenean.

Europako dirulaguntzak eskatzeko epea etzi hasiko da eta martxoaren 8ra arte iraungo du. Nafarroan 18.000 nekazari eta abeltzain inguruk eskatu ohi dituzte aipatu dirulaguntzak. Orain arte abeltzaintzako primak eta nekazaritzako dirulaguntzak (hiru eratakoak: zereala, oleaginosoak eta proteaginosoak) eskuratzeko zenbait eskaera egiten bazituzten ere, datorren urtetik aurrera eskaera bateratua eta bakarra egingo dute. Aldaketa honek «asko erraztuko dizkie tramite guztiak eta, ondorioz, dirulaguntzak ere orain arte baino bizkorrago jasoko dituzte», Etxartek azpimarratu zuenez.

Aurten 12.000 milioi pezeta iritsi dira Bruselatik. Dirulaguntzen erdia ekainean jaso zuten eta beste erdia azaroan. Aste honetan 534 milioi banatu dituzte eta falta dena martxora aldera jasoko dute nekazariak. Atzerapen honen arrazoia, Nekazaritzako sailburuak azaldu zuenez, Espainiako Gobernuak erregadioan gehiegi landatzeagatik nolabaiteko zigorra espero zuela izan da. Datorren urtean ere 12.000 milioi pezetako dirulaguntzak jasoko ditu Nafarroak. X

## EAEko azken Gobernu Kontseiluak Industria Plana aztertu zuen

Erredakzioa / Donostia

URTEKO azken Gobernu Kontseiluan, hau da, atzo egin zena, Industria Plana aztertu zuten Eusko Jaurlaritzako sailburuek. Dena den, atzoko bileran iragarri zenez, Javier Retegik, Industria eta Nekazaritza sailburuak, planari buruzko beharrezko azalpen guztian heldu den urtarrilaren 9an egingo den bilkuran eman beharko ditu: 1996-99 bitartean EAEko Industria Sailak bultzatu nahi dituen egitasmo bereziak biltzen ditu Retegiren sailak landu duen Industria Planak. Egitasmo horretan, gainera, industria jardueraren bultzatzeko Gobernuak zenbait proposamen eta aholku ematen die enpresariari eta sindikatuei. X